

Landareen erantzun immunitarioan inplikaturako 400 gene baino gehiago identifikatu dituzte

Landareek mikroorganismoak detektatzeko hartzaille izan daitezkeen 472 gene identifikatu dituzte. Hartzaille horiei diana immune deritze, eta haiek abiarazten dute landareen babes-erantzuna. Hau da, mikroorganismoak identifikatzen dituzte, eta landareentzat onuragarriak edo kaltegarriak izan, modu batera edo bestera erantzutera eramaten dute landarea. Ondoren, landare eta mikrobioen artean gertatzen den seinale-truke konplexuan bitartekari lana ere egiten dute. *PLoS ONE* aldizkarian argitaratu dute ikerketaren emaitza.

Orain arte, landareen immunitatearen oinarriak finkatu zirenetik, mikrobioen hartzaille gutxi batzuk baino ez zituzten aurkitu. Izan ere, landareek oso mekanismo sofistikuak garatu dituzte inguruko mikroorganismoak detektatu eta, horiek antzeman ondoren, babesteko sistema immunologikoa aktibatzen edo, ostera, onuragarriak izanez gero, erizosferan ezartzen uzteko.

Ikerketa egiteko, *Arabidopsis thaliana* landare eredu erabili dute. Taldeak estrategia berria diseinatu du diana immuneak identifikatu ahal izateko.

“Identifikazio-lanetarako *high-throughput* estrategia jarraitu dugu (errendimendu altukoa): erabili ditugu, batetik, DNA mikrotxipen teknologia, *Arabidopsis*en sekuentziario-informazioa baliatzen duena, eta, bestetik, birus bakteriofagoak, genoma horretako balizko proteina guztiak espresatzea ahalbidetzen

durelako”, azaldu du ikerketan parte hartu duen EHUko Susana García. “Hala, 20 milioi proteina aztertze aukera izan dugu, eta, horien artean, mikroorganismoekin elkarrekintzan aritzeko gai direnak hautatu ditugu. Horri esker, oso azkar ezagutu ahal izan dugu 472 gene horien funtzio posiblea”. ●



Susana García, EHUko Fisiologia saileko ikertzailea. ARG.: © EHU.



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

